



NIF: B 01439025  
 K/ Lasierra 15, 01428, Lasierra, Araba  
 e.mail: info@azala.es  
 www.azala.es

## **AZALA KREAZIO ESPAZIOAREN ETA EGOITZAN ONARTUTAKO ARTISTAREN ARTEKO HITZARMENA**

### **NOREN ARTEAN:**

AZALA, kreaio espazioa  
 Helbidea: Lasierra 15  
 Tel: 665 705 136  
 e-mail: info@azala.es  
 NIF: B01439025  
 Ordezkarri: Idoia Zabaleta Moran  
 Aurrerantzean AZALA izendapenez adierazia

### **ETA:**

Izena:  
 Helbidea:  
 Telefonoa:  
 NAN o NIF:  
 e-mail:  
 Ordezkarri:  
 Aurrerantzean ARTISTA izendapenez adierazia

Bi ordezkarriak hemen egonik, hitzartzen dute:

### **Akordioaren funtsa**

AZALAK egoitzan onartzen du ARTISTA,  
 .....tik eta .....ra bitartean, AZALAK egonaldian zehar bertako instalazioak eta ekipamenduak ARTISTARI eskaintzeko konpromisoa hartzen du. ARTISTAK, berriz, bere ikerkuntza eta sorkuntza prozesua epealdi horren barruan burutzeko konpromisoa hartzen du, baita instalazioen erabilera egokia egiteko konpromisoa ere, "Erabilera zuzenaren dekalogoak" bermatzen dituen errespetuaren eta bizikidetzaren irizpideak jarraituta.

### **Portaera-arauak**

Ordezkarri biek segidan zehazten diren honako oinarri hauek betetzeko konpromisoa hartzen dute:

- Alderantzgarritasuna: gauzak (bai objektuak edota makinak, bai subjektuak edota erakundeak) norberarentzat dira erabiltzekoak AZALAN, baina norberak behar du ere gauzentzat izan.
- Hartu-emana: ezagutzak, gaitasunak, solasaldiak, denbora, espazioa, makinak, materialak, erreferentziak eta hamaika gauza gehiagoekiko.
- Ahalmena / bilakaera: AZALA izan daitekeen hori imajinatzerara eta proposatzerara gonbidatzen zaio norberari, eta alderantziz. Unean uneko gogoen, ahalmenen, esperientzien arabera definitzen doan proiektua baita AZALA.
- Afektua / partaidetza: AZALA afektu-gune modura azaltzen da, besteari eragiteko eta norberarengan ere eragin dezaten. Partaidetza bizia proposatzen da. Ekintzaren bidez, besteen partaidetzaren aldeko espazioak zabaltzen ditugu (adibidez, jendaurreko entsegu bat, irakurraldi bat, solasaldi bat, zine-foruma, afari bat, irtenalditxo bat, garbiketa orokorren bat...)

----- [Azala kreaio espazioa]-----

**AZALAK honako ekipamendu teknikoa jartzen du ARTISTAREN eskura:**

- 1 soinu-mahaia eta bozgorailuak
- 1 TV
- 1 DVD irakurgailua
- 1 KD irakurgailu bikoitza
- 1 bideo-proiektagailua
- 1 diapositiba-proiektagailua
- 1 handycam bideo-kamera
- 1 haririk gabeko mikrofonoa eta bere oinaldea
- bakoitzari dagozkion kableak
- 1 arbela

ARTISTAK materiala teknikoa jaso duen baldintza berdinetan uzteko konpromisoa hartzen du. Matxuraren bat gertatuz gero, ARTISTAK bere gain hartuko du ordainketa.

**Egonaldiari buruzko materialak**

ARTISTAK etorri baino lehenago bidaliko beharko du AZALARA bere egonaldian landuko duen proiektuari buruzko materiala grafikoa eta idazlan bat. Materiala hori guztia AZALAK duen web atarian jarriko da erabilgai, baita kreaio espazioak duen komunikazio-materialaren artean ere.

**ATE IREKIAK**

Egonaldiak iraun bitartean, ARTISTAK bere lana erakusteko konpromisoa hartzen du, horretarako AZALAK prestatu duen "Ate irekiak" izeneko lanegunean hain zuzen. Aurkezpen eguna ARTISTAREN eta AZALAREN artean adostuko da. AZALAK aurkezpen horren nondik norakoen berri emango du bere WEB atarian, eta adostutako eguna baino egun batzuk lehenago mailing bat egingo du.

**Grabazioak, egonaldiak iraun bitartean**

ATE IREKIAK izeneko lanegunean egindako aurkezpena grabatu ahalko du AZALAK, bere artxiborako, baita WEB atarirako materiala gauzagarri gisa ere. Horrez gain, hainbat artistekin egindako elkarrizketak proposatuko dira audio moduan, horiek ere artxiborako. Artxiboko material hori guztia ikertzaileen esku jarriko da. AZALAK alde zuzen jakinaraziko die artistei.

**Ikerraldi-materiala, egonaldia egin ondorengo informea**

ARTISTAK, egonaldia amaitu eta hilabeteko epean, egonaldiak bere lan-prozesuan izan duen eraginari buruzko informe bat (testua edota ikus-entzunezko materiala) AZALARI entregatzeko konpromisoa hartzen du. AZALAK lekua egingo dio artxiboan materiala horri, eta web atarian ere eman ahalko du.

**AZALA aipatu, lan-kredituetan**

AZALAN egindako egonaldiaren ondorioz, landutako proiektuari jendarterako "produktu" izaera ematen bazaio, ARTISTAK kredituetan AZALA aipatzeko konpromisoa hartzen du, egonaldirako laguntzaile hartu duen aldetik.

**Beste ohar batzuk:**

Animaliak / Maskotak

AZALAK animalien sarrera ukatzeko eskubidea du. Animaliak onartzen ditu kanpoaldean dituen instalazioetan, baina ez barrualdeko espazioetan (bordatxoak, txokoa, estudioa...). Dena den, egoera neurtuko da eta ondorioak aterako dira. Jabeek alde zuzen abisatu beharko dute animaliak dakartzatela, eta egonaldiak iraun bitartean, animaliek kalteak eragiten badituzte, jabeek bere gain hartuko dute ordainketa.

Azaldu den guztiarekiko adostasuna eta onarpenaren agergerri, bi ordezkariak hitzarmen hau izenpetzen dute, Lasierran, 2011ko .....ren .....(e)an

AZALA, kreaio espazioa  
Idoia Zabaleta Moran  
AZALAKO zuzendari artistikoa

.....  
Egoitzan onartutako artista

----- [Azala kreaio espazioa]-----